



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



**Ostirala**  
**2007-11-16**

VURTEA 1289.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Genero indarkeria publikoki salatu du Udalak, mozio bat onartuta

**TOLOSA** Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira ekitaldi ugari antolatu dituzte

**DATUAK** 2004-07 artean 42 lagunek eskatu dute laguntza Udalean eta Ertzaintza 39 kasuren jarraipenarekin ari da 3



'Pantomimas Kutxo' mimo emanaldia izan zen herenegun Leidor antzokian ESTI EZEIZA

## EMANALDI GEHIAGO GAUR LEIDORREN

**TOLOSA** Antzerkia eta dantza izango dira, Gainditzen gorren elkarteak antolaturiko Sentsibilizazio Asteko ekitaldien baitan 24

## AHTri buruzko galdeketaren harira ekitaldi asko izango dira

**ANOETA** Biharko umeen eguna antolatu dute eta etzi VII. herriko artisauek eta baserritarren azoka egingo dute plazan, bazkariarekin batera 24

**LANDER OTERMIN** SOKA TIRALARIA

«Ibarran taldea ateratzea posible da zortzi lagun bilduz gero»

**IBARRA** Euskal Herriko Goma Gaineko Sokatira Txapelketaren kanporaketa jokatu du bihar 6

bete eta bidali/eraman edo deitu:  
**Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza.**  
Araba etorb. 5, behea - 20400 Tolosa

Izena.....Abizenak.....

.....NA.....

Helbidea.....

Herria.....P.K.....

Telefonoa.....

k/k [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ]

P.elektronikoa.....

arreta zenbakia

**902-82 02 01**

(astegunetan 8:30-20:30 / larunbatetan 9:00-13:30)

egin zaitez orain **Hitzaren harpidedun**  
eta zure **ametsetako bidai**a eskura dezakezue!  
bi lagunentzako astebeteko egonaldia



Deiak edo esku orriak jasotzeko azken eguna: abenduak 12  
Zozketa eguna eta irabazlea egunkarian: abenduak 20

Abenduaren 12tik 14ra Lege Organikoa Data Pertsonala Babestua, behar izanez gero zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.ren fitxategi automatizatu batera pasatu eta, enpresari dituen enkaritza berriz emanda, zure esku dago. Kuzkoak, zuzentzeko, ezarritako eta korretzeko eskubidea erreserbatuta. Zure datu pertsonalaren erabilera eta irabazlea egunkarian: abenduak 20. Tolosa, 2007-11-16. Hitza eta bere laguntza.

**HITZA**  
orain gertuago

kanaria uharteak egipto  
jordania riviera maya  
salvador (brasil)  
costa rica istanbul india

## Laburrak

### Tutorean bisita izango da gaur, KZgunean

**ANOETA** • Tutorearen bisita izango dute gaur Anoetako KZgunean. 16:00etatik 18:00etara izango da, beraz, ohiko ordutegiaz gain (11:00etatik 13:00etara), bihar arratsalde ere zabalik egongo da KZgunean.

### Durangoko Azokara joateko autobusa jarri dute

**TOLOSALDEA** • Urtero bezala, Durangoko Azokara joateko autobusa antolatuta du Galtzaundi euskara taldeak. Hain zuzen ere, euren asmoa egun pasa egitea da Euskal Liburu eta Diskoen Azokan, izan ere, goizez irtengo da autobusa, eta gauez iritsi. Bazkideek 8 euro ordaindu beharko dute bazkide ez direnek 8. txartelak eskuratzeko Galtzaundiren edo Aiurriren egoitzara jo beharko da.

### Lau pilota partida gaur, ikusgai, pilotalekuan

**AMEZKETA** • Gaur, Zazpi-Ilturri pilota eskolako lau partida izango dira pilotalekuan. 20:00etan hasiko dira norgehiagokak. Lehenengoa kadeteen binakakoa izango da, Ernioperen aurka; ondoren, gazteen arteko binakakoa Aurrera Saiazen aurka; hirugarrena nagusien mailako binakakoa Zumaia-aren aurka; azkenik, nagusien mailako binakakoa Bergararen aurka. Bestalde, DV torneoaren final-laurdenetan, etzi, 11:00etan, Zestoan, Leunda eta Renobales-Garmendia ariko dira.

### Aurrera-Saiazen norgehiagokak, gaur

**PILOTA** • Gaur, Bidanian, Aurrera-Saiazen bi norgehiagokak izango dira, 19:15etik aurrera. Lehenengoa, kadete mailan banaka, Tartalo eta Etxeren aurkakoa izango da, eta gero, Azkoitiko pilota eskolako aurka ariko dira. 21:15ean, Tolosako Beotibarren, senior mailako bi partida jokatuko dituzte: lehenena, Zazpi-Ilturiren aurka, eta bigarrena, Oiarperen aurka. Azkenik, Ibarren, 20:15ean, senior mailako artekoa izango da, Behar Zanaren aurka.

### Beotibar zesta-punta taldekoen partidak

**TOLOSA** • Gipuzkoako Txapelketa Kutxa Saria izango dute gaur jokari Beotibar zesta-punta elkarteak. Nagusietan, Beotibar 1 eta Zumaia lehiatuko dira, 20:00etan Uzturpe pilotalekuan. Kadeteetan, berriz, 19:30ean hasita, Beotibar 1 eta Danok bat-en arteko partida izango da Beotibar pilotalekuan; ondoren, Beotibar 2 eta Donostiak jokatuko dute. Bihar, berriz, Udazkeneko Topaketak izango dira. Infantilak Mutrikun ariko dira eta alebinak Zumaian.

# «Gure borroka eta zailtasunak azalduz, zuen babesa jasotzea lortu nahi dugu»

**SERGE GOULART** • Brasilgo Fabrika Okupatuetako Mugimenduaren Koordinatzailea

**Tolosa** • Hitzaldia emango du gaur, 19:00etan Otsabi auzo elkarte, 'Euskal Herria Sozialista'-k antolatuta

**IÑIGO TERRADILLOS**

*Euskal Herria Sozialista* aldizkariak antolatuta, Serge Goulart, Brasilgo Fabrika Okupatuetako Mugimenduaren Koordinatzailea eta Partido dos Trabalhadoresen (PT) Zuzendaritza Nazionalako kidearen hitzaldia izango da gaur, 19:00etan, Otsabi auzo elkarte

edo Sanblaspioko Gaztetxean (Denak tabernaren alboan).

**Zer azalduko duzu gaurko hitzaldian?**

Fabrika Okupatuetako Mugimenduaren nondik norakoak. Brasilen eta Latinoamerikan, orohar, egoera zertan den kontatuko dut.

**Zein da egoera, eta nondik dator Fabrika Okupatuetako Mugimendua?**

2002. urtean sortu zen mugimendua da, Brasilen Da Silvak huteskundeak irabazi zituenean. Urte horretan, fabrika ugari hasi ziren izten hainbat arrazoirengatik, eta langile skolo lanik gabe geratu behar



Serge Goulart, HITZA

ziren, eta horren ondorioz sortu zen mugimendua. Lanik gabe geratzeko, fabrikak okupatzen hasi ginen eta langileek lanean jarraitu dute, ordura arte bezala ekoizten.

**Gaur Tolosan izango zara, baina aurretik, beste hainbat herritan ere izan zara.**

Bai. Espainiako hainbat lekutan ere izan naiz han gertatzen ari dena azaltzen. Gure borroka eta zailtasunak azaltzea da gure asmoa, horrela, zuengandik babesa jasotzeko, beharrezkoa baitugu. Orain arteko hitzaldietan harrera beroa izan dugu, eta oso gustura gaude.



Goian, Kataluniako Esbart Jove de Gualba taldea, eta behean, Valladolideko Corrobla de Bailes y Costumbres taldeko kideak. HITZA

# Kataluniako eta Valladolideko dantzak eta Udaberrikoenak, bihar ikusgai

**Tolosa** • 22:30ean hasiko da emanaldia, Beotibar pilotalekuan; leku bakoitzeko tradiziozko dantzak eskainiko dituzte

**IÑIGO TERRADILLOS**

Babarrun Astearren baitan ekitaldiz beteriko asteburua datorkigu, eta egitarauan, dantza emanaldiak ere badute lekua. Hain zuzen ere, Udaberri dantza taldeak bihar eskainiko du saioa, Beotibar pilotalekuan, 22:30etik aurrera.

Urtero eskaini ohi du dantza

saioa Udaberri taldeak egun hauean, «baina iaz ez zen izan eta aurreten 50. urteurrena dela eta, saio berezia izango da ikusgai», azaltzen dute dantza taldekoek. Izan ere, Udaberri gain, beste bi talde ere ariko dira pilotalekuan euren dantza eskainiz.

### Kataluniako dantzak

Kataluniako Esbart Jove de Gualba izango da talde horietako bat. Gualba herriak beti izan du lotura estua kultura eta artearekin. Hala, tradiziozko dantzak zuen garrantziaz ohartuta, 1991n talde hau sortu zuten hainbat herririkide, eta Ri-

card Capdevilaren zuzendaritzapean hasi ziren emanaldiak. Hasiarako unetik, talde honen helburua tradizioa mantentzea izan da, eta hori euren jantzieta, musikan eta koreografieta erakusten dute. Gualban herrian Udaberrikoak izan ziren joan den abuztuan eta orain, berriz, haiek dira Tolosara datozena eura dena erakustera.

### Valladolideko erritmoak

Kataluniako taldeaz gain beste talde bat ere gonbidatu du Udaberri biharko emanaldian parte hartzera, Valladolideko (Espainia) Corrobla de Bailes y Costumbres tal-

dea, hain zuzen. Bertako kultura aztertu eta zabaltzeko helburua izan duen taldea da, batez ere, musikaren eta dantzaren bidez. 1989. urtean hasi ziren Valladolideko tradiziozko abestia, dantzak eta jantziak aztertzen, eta horretaz gain, taula gainean interpretatzen. XIX. eta XX. mendeko koloreak eta erritmoak dira eskaintzen dituztenak.

Beraz, Udaberrikoek azaltzen duten bezala, «oso gutxitan ikus daitezkeen emanaldi horietako bat» izango da bihar Beotibar pilotalekuan hiru taldeek urkeztuko dutena.

# Udalak publikoki salatzen du genero indarkeria, onartutako mozio batekin

**Gizartea** » Hainbat ekitaldi egingo dituzte, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunagatik

## ESTI EZEIZA

Hilaren 25ean, Emakumeekiko Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna da, eta honen harira zenbait ekimen jarri dituzte martxan Tolosako Udaleko kideek. Tolosa, Berdinsarea osatzen duten 36 udaltxeren artean egoteaz gain, Emakunderekin ere ari da lanean. Aurtun, indarkeriaren gaiari lotuta, kanpaina berri bat jarri dute martxan, eta hau, 13-18 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Onintza Lasa Berdintasunerako zinegotzia eta Josebe Iturriotz izan dira egitasmo berri hau Tolosan landu dutenak.

Ekimen honen helburua, adin tarte horretako nerabeak sentsibilizatea da. Izan ere, Jokin Bildarratz alkatearen esanetan, «garai horretan sortzen dira gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak». Antolatutako jardueren artean, Laskorain eta Orixe ikastetxeko 15 urteko ikasleei indarkeriari buruzko hitzaldiak eman dizkiete Josebe Iturriotzek. Bestalde, hiriko eskultura guztiak zapi beltzez estaliko dituzte.

### Deklarazio instituzionala

Herenegun iluntzean burututako Aparteko Osoko Bilkuran gai amonografikoki landu zuten. Hemen, Josebe Iturriotz berdintasun teknikariak azken hilabetean egindako azterketaren emaitzak plazaratu zituen. Ondoren, aho batez



Herenegun Aparteko Osoko Bilkura egin zuten Udaleko kideek, gai hau jorratzeko. E. EZEIZA

## » EKITALDIK

### Azaroak 22, osteguna

■ **19:00.** Bideo Foruma Errota Haur liburuetan. Iciar Bollainen *Te doy mis ojos* filma ikusgai.

■ **Egunean zehar.** Indarkeriari eta emakumeari buruzko liburuen erakusketa.

### Azaroak 23, ostirala

■ **Murala.** 10:00etan hasita, Eva Menak indarkeriaren arazoari buruzko mural bat margotuko du Triangulon.

■ **Esekitokia.** Orixeko eta Lasko-raingo ikasleek esekitoki bat egingo dute aldikarier berriekin, emakumeenganako indarkeriaren errealitatea islatuz.

■ **Klownklusioak.** Virginia Imaz pailazoak burututako ekintzei buruz bere ikuspuntu berezia eman-got du.

### Azaroak 25, igandea

■ **19:30.** Elkarretaratzea Triangulo plazan.

onartu zuten Udaleko kideek, Azaroaren 25eko Deklarazio Institutuzionala. Hala, honen bidez, «Tolosako Udalak publikoki salatzen du indarkeria matxista (gizarte honetako gaintza), zorritzarekin, gure herrian ere badagoena».

Mozioa onartzearekin batera, Udalak konpromisoa hartzen du garatzeko, bere eskumenen barruan eta indarrean dagoen legeriaren arabera, udal politika aktibo, integral eta koordinatua. Hala, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra, eta arreta berezia jarritz, neska gazteengan.

Honekin batera, Tolosako herritar guztiak gonbidatu nahi ditu aktiboki parte hartzera hilaren 25ean, Emakumeenganako Bortxakeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta, antolatu diren ekitaldietan.

### Zenbait datu

Josebe Iturriotz Berdintasun teknikariak, azken hilabetean, Tolosako datuen azterketa bat egin du.

Onintza Lasa zinegotziak herenegun zioen bezala, «tratu txarrez hitz egitean, normalean, kanpoko gauza bat dela uste badugu ere, gurean ematen dira halako kasuak».

Iturriotzek luzatutako datuen arabera, Tolosan, 2004-2007 urte bitartean 42 lagun gerturatu dira udaletxera laguntza eske, era bateko edo besteko tratu txarrak jasartzen dituelako. Bestalde, Ertzaintza 39 kasuren jarraipena ari da egiten. Horietatik 21 tolosar «petoak» dira. «Horrek adierazten du kasu hauetan ez dagoela bereizketarik hemengo edo kanpokoen artean», gaineratu zuen Lasak.

Josebe Iturriotz nerabeekin ari da lanean egun hauetan, eta berak esandakoaren arabera, «guk uste genuen gazteen artean berdintasun kultura bazegoela, baina adin horretan estereotipoak oso markatuak daude». Datu hauek ikusita, Onintza Lasak azaldu zuen, «nerabeekin lan handia egin beharra dagoela, hau etorkizuneko gure gizartea dela, eta oraindik lan asko dagoela egiteko».

## Tripafesta kulturalak



### » Kale-kantoitik

Joxemi Saizar

**U**dazken kulturala, azaro kulturala, kultur hamabostaldia, kultur elejira, kultur astea... Besterik ez dago garai honetan gure eskualdeetan. Duela urte batzuk atzeritar bat harrututa gelditu omen zen behin *Berria* egunkariako agenda ikusita, horrelako herri txikian egun berean hainbeste kontzertu, antzerki emanaldi, hitzaldi, erakusketa, diapositiba eta bideo proiektzio, zinema, eta abar zeudela ikusita. Bada, gure eskualdea ere ez da atzean gelditzen. Batez ere udazken partean. Ikusi besterik ez dago TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariako agenda nola dagoen.

Kultura eta gastronomia lepotik uztertuta etortzen dira, Euskal Herrian behintzat. Kultur ekitaldiekin batera datoz tripafestak. Udan Ibarrako piper eta tomateak izan ziren. Eta Ugarteko mondejua garaia bukatzen ari denean, Tolosako babarrunarena (aurten zekalearekin bikoiztuta) eta San Martingo txerria hiltzearena iristen da. Talo, odolki eta gaztain jateak ere iragarten dira egun hauetan kultur ekitaldien artean. Txekor eta basurde jateak (eta ez txekor jana edo basurde jana, oso bestelakoak baitira) ere ez dira urrutit. Datoren hilean txuleta festa iritsiko zaigu Tolosako Zerkausi merkatu eraberritua. Aurrerago arraultzarena ere toki berean izango da.

Noiz egingo da tolosar erara prestatutako mingainaren festa? Jai hori bakarrik ahaztu zaigu antolatzea, nik dakidala behintzat. Bazkari eta afari herrikoiak (eta pribatuak ere bai), afari-meriendak, ordu txikitako baratxuri zopak... Horrela ez dago gosetzerik! Horrela ez dago forma mantentzerik!

**@ Begiradak.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK gai zehatz bati buruz argitaratu dituen albiste garrantzitsuenak biltzen dira atal honetan. Orain arte bildu diren gaiak hauek dira: AHT proiektua, eskualdeetako musika taldeak, eskualdeko etxebizitza berriak eta azken udal hauteskundeetan hautatutako alkate berriek egindako elkarrizketak. Sartu eta irakurri. Izan ere, intereseko gai hauen gaineko informazioa balio-garri egingo zaizu, aurrerantzean, gaiari jarraipen hobea gozatu egiteko.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Dantza eta antzerkia gaur, Leidorren

**Gizartea** » Gaintitzen gorren elkarteak antolatutako Sentsibilizazio astearen baitan izango da hori

## E. EZEIZA

Gaintitzen elkarteak antolatutako Sentsibilizazio Astearen baitan, *Sacrificio ecologico* izeneko laburmetraia eta antzerki emanaldia izango dira gaur Leidor zineman. Ekitaldia 21:30ean hasiko da. Bigarren saioan Gaiztan taldeak eta Lituaniako dantza eta aktore talde batek hartuko dute parte. Lituaniarrak herenegun iritsi ziren Tolosara eta egun hauetan zehar Tolosa bisitatzeko aukera izan dute.



Lituaniako dantza eta antzerki taldekoak Tolosan dira jada. I. TERRADILLOS

Gaintitzen elkarteak lehendakari den Julian Rodriguezek Frantziara, udan egindako sentsibilizazio aste batean ezagutu zituen lituaniarrak. Hala, denbora honetan harremana mantendu dute eta gustura hartu dute Tolosan beraien emanaldia aurkezteko pro-

posamena. Gaurkoan dantza mota ezberdinak egingo dituzte, klasi-koetatik modernoata bitartekoak. Honez gain, antzerki bat ere eskainiko dute.

Aktoreek garbi utzi nahi dute, gorrei nahiz entzun dezaketenei zuzendutako ekitaldia dela gaurkoa. Horregatik, jende guztia gonbidatuta dago ikuskizunaz gozatzera. Bestalde, aipatzekoa da ere ahozko hizkuntzekin gertatzen den bezala, herrialdearen arabera zeinu hizkuntza ezberdinak daudela. Hala, lituaniarren egiten dutena eta Euskal Herrikoena ez da berdina. Dena den, nazioarteko gorren hizkuntza bat ere badago, eta era honetan entzetzeko dute gaur gaueko dantza eta antzerki emanaldian.

# AHTri buruzko galdeketaren harira, ekitaldi ugari antolatu dituzte

**Anoeta** » Abiadura Handiko Trenari buruzko infomazioa zabaltzen duen erakusketa dago ikusgai gaur kiroldegian

## ERREDAKZIOA

Datorren hilaren 2an, igandearekin, Anoetako herritarren artean egingo duten galdeketaren harira, Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak hainbat ekitaldi antolatu ditu astebururako. Halaber, herritarren artean infomazio kanpaina zabala burutu ostean, erakusketa bat zabaldu dute AHTren inguruan, Anoetako kiroldegian.

## «Instituzio publikoetatik infomazio gutxi»

Gaur egun osoan bisitatu ahalko dute interesatuek erakusketa eta asteburuan zehar plaza aldera gerturatuko dute. Bertan, AHTk Anoetan eta, oro har, Tolosaldean «mondik igaroko litzatekeen eta zehar kalte eragingo litzuzkeen» azaltzen dute. Infomazio iturria Eusko Jaurlaritzak 2003-04 artean udaletxeetara bidalitako oinarritzko proiektua izan da. Antolatzailerak aipatu dutenez, «orduz



Zazpigarren urtez antolatu dute baserriar eta artisauren azoka. HITZA

geroztik ez da instituzio publikoetatik infomazio gehiago jaso; hasierako proiektua oinarritzkoa da».

## Azoka protagonista

Urtero bezala, VII. herriko baserriar eta artisauren azoka antolatu dute etzizarako. Bertan herriko barazki, fruitu, abereen erakusketa, musikariaren topaketa, txistulariak, txalapartariak, taloak, taberna eta infomazio gunea izango dira.

## Tolosa eta Ibarrik deialdiak

Tolosa-Ibarrik AHT Gelditu! Elkarlanak jakinarazi duenez, «hilaren 17an Hernanin burutu behar

diren hitzaldiak, Tolosako Triangulo hilaren 22an 19:30ean egin behar den elkarretaratzea eta Anoetan abenduaren 2an egingo den herri galdeketarekin bat egiten du eta jendeari parte hartzeratokia egiten du». Halaber, aste

## » EGITARAUA

### Azaroak 17, bihar

■ **11:00-13:00.** Umeen Eguna antolatu dute; umeentzako pilota tailerra izango da.

■ **16:00.** Ume jolasak.

■ **17:30.** Txokolatada.

### Azaroak 18, etzi

■ **10:00-14:00.** VII. herriko baserriar eta artisauren azoka. Egunean zehar herriko nekazarien sorta zozketatuko dute.

■ **14:00.** Bazkaria Kuku elkartearen. Izena emateko zerrendak Itzulin, Arkupen eta Laian.

■ **18:00.** Herriko trikitilariaren erromeria.

hauetan «inposaketa eta gezurren medioz hainbat alderdik komunitatearen laguntzarekin burututa-deia sasi kanpaina» salatu dute.

## Ez dok hiru taldearen 'Larru haizeetara' antzezlanaren bihar ikusgai

**Villabona** » Sexua ikuspuntu umoretsu batetik lantzen duen antzezlanaren Gurea antzokian izango da gaueko 10etan

## H. BELLOSO

Bihar, 22:00etan eta Gurea antzokian, Ez dok hiru taldearen *larru haizeetara* antzerkia izango da. Sarriren salneurria zortzi eurokoa izango da, eta Gazte Txartela erakusten dutenek bi euroko deskontua izango dute.

Ordubetez bertsoak bota, kantak abestu, dantzatu, moztortutu, antzeztu eta, batez ere, sexuaz hitz egingo dute Mikel Martinez eta Patxo Telleria aktoreek. Umorea da bi aktore ezagunen lanaren ardatza. Euskal Herriko herrien erreparazio zorroztza, eta geniala aldi berean, egingo dutelarik.

# Sanmartiñak amaitzera doaz

**Amasa** » Igandean Martina Sorginaren agurrarekin emango diote amaiera aurtengo San Martin festa arrakastatsuei

## HARRIET BELLOSO

Asteburu honetan amaituko dira 2007ko sanmartiñak eta festen zehar izan den bezala, musika eta kirola izango dira nagusi, atsedendira ko etenik.

## Jarduerak interesgarri asko

Larunbatean, 11:00etan, ume krosa egongo da 6. mailara arteko haurrentzat. Ondoren amasarrik gazteluarren aurka ariko dira aizkora, txingana, korrika eta bizikletan. 18:00etan afizionatuen arteko eskuzko pilota partida jokatu dute. Ibarguren-Artola Arretxe-Pinarren aurka ariko dira. 11:30etik aurrera DJ festa egongo da plazan



Ekitaldi ugari egingo dira asteburu honetan Amasan. M. SOROA

eta goizaldera arte irauten dutenentzat, Xabi dantzaleku.

Igandea festen azken eguna izango da. 11:00etan Amasako XV. Mendiartloia egingo dute eta

17:00etatik aurrera joko garbi partida izango da. Amaitzen denean XVIII. Intxorren aldatzea egingo da eta Martina Sorginari agurra egingo diote.



digitala  
**h**

Datorren ostegunean, hilaren 22an,

## GARI URANGA

Realeko jokalariekin **elkarrizketa digitala**.


HITZAren erredakzioan izango dugu zuen galderak erantzuteko.

Bidali aurrez zuen galderak

[tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) helbidera.

Egunean bertan ere zuzenean galderak bidali ahalko dituzue.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)



## Etzi, Kultur Astearekin bukatzeko herritarren feria egingo dute

**Amezketak** » Herritarrek gustu handiz zaindu, landu eta prestatutako produktu naturalak izango dira plazan

### ERREDAKZIOA

Amezketako Kultur Astea azken txanpan dago. Etzi, igandean 10:00etatik aurrera azoka berezi bat izango da plazan. Bertan, herritarren produktuak izango dira salgai nahiz ikusgai.

Animaliak, artisaauk, produktu bereziak, lan-tresnak, erakustaldiak, baserriko produktuak... izango dira goiz osoan zehar. Giro polita espero dute herrian igandean.

### Guillermo Olmoren lanak

Kultur Astearen baitan Guillermo Olmo eskultorearen lanak daude ikusgai: harriz egindako pieza handiak dira eta bi plazan daude, 3 udaletxearen azpian eta balioanitzeko gelan beste hainbat. Ikusteko bitxiak dira eta apaintzeko ere, dotoreak.



Donostian euskal makil borroka irakasten dute, eta hainbat herritan erakustaldiak ere egiten dituzte. I. OTEGI / AP.

Siziliara egindako bidai batek euskal makil borrokaren berri eman zion Iñaki Ganboa azpeitiarrari. Ordutik liburuetan eta ahozko tradizioan oinarrituta informazioa eskuratu du, eta Amezketan erakustaldia egingo dute bihar.

# Makila arma bihurtuta

### NEREA URBIZU

**S**iziliatik izan zuen Iñaki Ganboak makil borrokaren berri: euskaldunen artean, eta batez ere, artzairen errealitateetik hurbil erabiltzen zen borrokaren berri, hain zuzen. Bera da

Amezketako Kultur Astearen baitan euskal makil borrokari buruzko hitzaldia emango duen azpeitiarra. Makil jokoaz galdetu zioten azpeitiarrari Sizilian hara joan zen batean, eta berak orduan ez zuen horren berririk. Bi siziliarek esan zioten ahozko tradizioaren bitartez jasotakoa: euskaldunek noiz-bait han ezagutzera eman zutela makil borroka (zehazki Nafarroatik zetorrela esaten zuten).

Handik abiatu zen: Azpeitian galdetu zion osaba bati eta honek, han bertan ezagutu zuen borroka hau, XX. mendean. Bi puntutara eramana zizkien osabaren kontu haiek: Oiarzunera eta Amezketara-Zaldibia aldera. Han berri gehiago topatu zituzten, eta dokumenta-

tzen hasi ziren liburutegietan. XVIII-XIX. mendeko liburuetan eta egunkari zaharretan aurkitu zituzten datuak. Beraz, ahozko tradizioa eta idatzitakoa ere bada. Leiza eta Areso inguruan ere informazio asko jaso zuten, batez ere, ahozko tradizioetik jasotakoa. «Jendeak ere gogoratzen zituen kontuak eta baita izenak ere».

### Borroka mota, eta ez kirola

Makila oso elementu arrunta da eta Euskal Herrian asko erabili izan da beti. Jarraitu duten haria artzain mundutik eratorritakoa da: ganadua babesteko, norberean burua babesteko, erabiltzen zuten... «Mendian bakarrik ibiltzen ziren eta bi hanketako nahiz

lau hanketako piztietatik defendatu behar ziren», Ganboak esan bezala.

Borroka mota honen berriak XVII. mendean ere badaude. Daturik esanguratsuen leitzar batek eman zien: «XIII. mendeko bataila batera joan ziren Leitzako batzuk: datu hauek berrestea ez da erraza baina arrazoi parte bat bazen: siziliarek XV. mendea aipatu zuten, eta 200 urteko aldeak ez da handiak». Beraz, Erdi Aroan izan zela, ziurtasun osoz gabe bada ere, bazen.

Makila gudarako eta babesteko zen, baina «gari haietan bereizketahori ez zegoen». Gudara joan behar zenean joan egiten ziren. «Erabilpen nagusia burua babesteko zen». Makilarekin aurkaria ez gaitzea zen helburua. Kontuak kontu, «makila herraminta oso eraginkorra zen».

### Orixen ere borrokalari

Orixen idazlea ere makilarekin borrokatzeko teknikak ezagutu eta erabili zituen. Beraz, XX. mendean. Eta badira oraindik makilarekin borrokatu izan direnak: Amezketan oraindik ba omen da borrokalari bat. Dena dela, teknika joko gehiago zegoen lehen eta asko, galdu egin dira. Hemen bi ezagutzen ditut, eta Sizilian bat.

### Biharko saioa

Bihar 18:30ean euskal makil borrokari buruz ariko dira informazioa ematen Amezketako balioanitzeko gelan. Ondoren erakustaldi bat egingo dute. Ganboaren asmoa beti makil borroka ezagutzera ematea izan da «eta ez berreskuratzera, ez baita inoiz galdu». Azken finean, borrokatzen dakiten batzuek erakutsia da, eta oinarri fidagarria dute. «Ez da berdina liburuetatik ikastea edo borrokan dakien batengandik ikastea».

## Zurea da hitza

# Albizturko egutegia osatzeko argazkiak

### ALBIZTURKO FESTA BATZORDEA

2008ko Egutegia osatzeko egitasmo berri bat jarri dugu martxan. Hala, Albizturren, gaur nahiz atzo jendeak ateratako argazkiak erabiliz egutegi bat osatuko da. Honetarako jendearen parte-hartzea ezinbestekoa da.

Argazkiek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte: alde batetik, Albizturren ateratakoak izan behar dute. Bestalde, gaia edozein izan daiteke: eraikinak, natura, pertsonaiak, argazki zaharrak, bitxiak... Aukeraketarako osa-

tzen den epaimahaiak egoera onean dauden argazkiak aukeratuko ditu, eta argazkiak aurkezteko epea hilaren 30ean amaituko da.

Egutegi honen zati izan nahi duen orok, ekarri edo bidali ditzake argazkiak, paperean nahiz modu digitalean helbide honetara: Albizturko kultur etxea z/g 20495 edo [albiztur@udal.gipuzkoa.net](mailto:albiztur@udal.gipuzkoa.net). Jasotakoaren artean 12 aukeratu dira eta hauekin osatuko da egutegia, egilearen datuak ere jarritan. Salgai jarriko da herriko taberna, saltoki eta udaletxean.



Harpidedun **guztien** artean, abenduaren 2an, Liverpool-eko Anfield estadioan jokatuko den **Liverpool - Bolton Wanderers** futbol partidarako, **bi pertsonentzako** hegaldia, bi gauerako hotela eta partidarako sarrera pareta **zozketatuko** ditugu!

Gainera, Xabi eta Mikel Alonso tolosarren kamiseta banal!



**HITZA** orain gertuago

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Irabazlearen izena, azaroaren 25ean argitaratuko dugu.

## E Elkarrizketa

LANDER OTERMIN › Soka tiralaria

## «Zortzi lagun elkartu ezkerro, Ibarren taldea ateratzea posible izango zen»

**Ibarra** » Euskal Herriko Goma Gaineko Sokatira Txapelketaren kanporaketa jokatu dute bihar Belabieta kiroldeagian 17:00etatik aurrera

## ASIER IMAZ

Goma gainean, Astigarrako (Gipuzkoa) Auzolan taldean neguan eta lur gainean, Aresorekin udarran. Lander Otermin (Ibarra, 1982) soka tiralaria da eta bihar herritarren aurrean ariko da 17:00etan frontoian, Euskal Herriko Goma Gaineko Sokatira Txapelketan.

**Nola hasi zinen mundu honetan?** Ibarra festetan kamioia tiratzen proba egin behar genuen eta nik Belauntzakoekin atera behar nuen. Orendainen sokatiran ibiltzen zen taldea bazegoela eta, bertara joan ginen entrenatzera. Han sokatira probatzen hasi ginen, nahiz eta teknika ezberdina izan. Gero probaren ondoren, gustatu egin zitzaidan baina besteek utzi egin zuten. Nora ez nekiala joan geratu nintzen. Horrela, Andoaingo festetan, herri kirolak zirela eta, sokatira egin behar zuten, baina ikusleak atera nahi zituzten horretarako. Ni atera egin nintzen eta oinarriko zoezer banekiela ikusi zuten. Ea sokatiran hasi nahi nuen galdetu zidaten eta horrela hasi zen dena.

**Ibarren Euskal Herriko Txapelketako bigarren kanporaketa jokatu da bihar.**

Bai. Lehen kanporaketa Aizarnazabalen (Gipuzkoa) jokatu zen. Bi multzo egin ziren 9 taldeekin. Tiraldi bat irabazten zuenak puntu bat irabazten zuen, biak irabazten zituenak, talde beraren aurkako biak hain zuzen ere, hiru puntu. Puntu hauek Ibarren lortutakoekin gehitu egingo dira. Talde berdinen aurka lehiatuko gara bihar ere. Amaieran, bi kanporaketak



A. IMAZ

puntuak gehitu egingo dira eta multzo bakoitzeko lehen hiru taldeak Oiarzunen (Gipuzkoa) jokatu den Finalerako sailkatuko dira. Bertan sei talde elkarren aurka jokatu beharko dute.

**Zer egin zenuten Aizarnazabalen?**

Aurrekoan irabazi egin genuen. Bigarren Sokarri geratu zen eta hirugarren Abadiño, beti ere gure multzoan. Orain gauza arraroren bat gertatu behar du, hirurotakoaren bat finalerako kanpo geratzeko.

**Pisuaren arabera txapelketak jokatzin dira sokatiran. Zuek 330 kilokoan lehiatuko zarete.**

330 kilo da muga, gu adibidez gara pisura iristen, 10 kilorengatik edo. Berez Txapelketa bi pisutan jokatzin ari da aurtin: lauen artean 330 kilotan eta 290 kilotakoan. Lehengo urtean bietan atera ginen baina aurtin jende txikiak ez dugu eta 290 kilokoan ez gara aterako. Pisu horretan sartzeko, bakoitzak 72 kilo inguru eman behar du eta gu pasa egiten gara. Pisuarekin kontuz ibili behar izaten da. Tiraldia baino lehen, Ibarren 17:00etan hasiko baldin bagara, 14:00etan zabalduko dute pisua eta kilo erdi pasaz gero pisutik, ez dizute uzten. Normalean denboraldi hasieran planifikatzen duzu dena eta badakizu zein den zure pisua eta zer egin behar duzu hori mantentzeko. Hala eta guztiz ere, lesioren bat

izan ezkerro eta ordezko sartzin baldin bada azken unean, arazoak egon daitezke. Zenbaitek egunean bertan galdu behar izaten du pisua, korrika eginaz edo aurreko egunean afaldu gabe etab. egonaz. Behin pisatu ondoren, tiraldia baino lehen jan dezakezu.

**Argal egotea komeni orduan?**

Orokorrean pisu gutxikoa baina handia nahi izaten da. Zenbat eta altuagoa orduan eta palanka handiagoa egiten baituzu. Soka gerrian joaten bada, gerritik gora zenbat eta luzegoa izan orduan eta palanka gehiago. Altua eta argala behar du tiralariak.

**Ibarren bi pisuko tiralariak arituko al dira?**

Pisu bat egingo da, 330 kiloko. Haseran neskek ere etortzekoak ziren baina konpondu ez zirenez, ez dira torriko azkenean.

**Nork antolatzen du Txapelketa?**

Federazioak tiradak antolatzen ditu eta gero tiralariok lekua aukera dezakegu. Nik Ibarren 330 kiloko kanporaketa bat egitea proposatu nuen. Herrian berriz, Hauspoaren bitartez antolatuko da.

**Txapela irabazteko aukerarik?**

Lehengo urtean bi pisutan atera ginen eta bigarren geratu ginen bietan. Abadiño txapelketa internazional batetarako preparatzen ari zen topoera eta salto handia zegoen haiengandik gure mailara. Aurtin ere nagusi beraiek izango dire-

la uste dut, nahiz eta lehengo urteko mailan ez egon. Hauek ordea 30 mutil inguru izaten dituzte plantilan, gu bost garen bitartean. 30etik lau on aukeratzea ez da zaila izaten, zaila bosteko taldetik lau on ateratzea da.

**Zer botatzen duzue eskuetan?**

Orain arte erretrina onartua egon da baina zerrikeri asko izaten zen. Batzuk zapatiletan ere botatzen zuten, heldu ere gehio egiten zenuelako, baina zikina geratzen zen goma. Orain berriz magnesioa erabiltzen da. Hautsa ematen da eta askoz ere garbigoa da, zapatiletan ere ez duzu emango irristatu egingo baitzara. Orduan justu eman behar duzun lekuan bakarrik ematen duzu, eskuetan eta gerrian. Zapatiletan zer bait egitekotan, lizatu egiten dituzu, hau onartua dago.

**Zein da entrenatzailearen funtzioa?**

Kanpotik begira jartzen da eta barnetik ikusten ez dituzun gauzak esaten dizkizu. Aurreraria nola dagoen ere ikusten du, nahiz eta barnetik ere badira gauza batzuk kanpotik ikusten ez direnak. Gehien bat sokaren kolokazioa zuzentzen du, gure posturak orekatzearekin batera.

**Nola hasten da lehia?**

Lehenik soka lurrean egoten da. Epaileak, «soka hartu» esaten du. Gero, «tenka» esaten du eta tenka esatean, bi taldeak pisikat etzaten gara, tiratzeko prest jarriaz. Lehengo tiratzaileen aurrean, bi zinta egoten dira sokan, gertuen duzuna eta zertxobait urrunago duzuna. Lehenak zinta txuriaren atzetik heldu behar dio sokari. Bigarren zinta zure taldearen marka da, hau da, puntu hori beste taldearen aldean sartzen bada, galdu egin duzu tiraldia eta alderantziz, euren zinta zure aldera ekartzen baduzu, tiraldia irabazten duzu. «Tira» esaten duenean epaileak, lehen kolpea botatzen duzu; ipurdia behera jeitsi eta ahalik eta golpe indartsuena ematen duzu, beti ere denek batera. Golpea garrantzitsua izaten da,

denek batera txukun ematen baldin baduzu, eta beste taldeak ez badu hain txukuna ematen, lehenengotik tiraldia irabaztea daukazu, edo alderantziz.

**Soka hausteko ere.**

Iragan urtean, sanbartolomeetan, soka lehertu egin genuen eta hamasei tiratzaileak hankak gora gemituela geratu ginen. Lehen golpea bate-batera eman genien bi taldeek eta presioaren ondoren soka lehertu egin zen. Sokan doazen lehen esandako zinta horietako bat kentzeko, kuterra erabili zuten eta sokari ebaki txiki-txiki bat egin zioten, baina golpea hain bateratua eta gogorra izan zen, soka eten egin zela. Ikusgarria izan zen, denak hanka gora, soka etenda, kea...

**Lehen golpearen ondoren...**

Batzutan entrenatzaileak esaten duena eta bestetan zerorrek ikusten duzuna egiten duzu. Irteera indartsua eman eta zure aldera datorrela ikusten baduzu, hildobiziti ratzen duzu. Ez baldin bada etortzen berriz, egoera ikusten duzu. Agian beraiek hasiko dira erasoan eta zu berriz hori geratzen saiatzen zara, pisikat nekatuarazten. Eraso eta eraso ari baldin badira eta gu eusten, neke gehiago izango dute geuk baino; lanean ari denak beti neke gehiago izaten du. Gero nekatzen direnean, orduan saiatzen zara. Beti ez da horrela izaten, egoera aztertzen jakin behar da. Batzuk hasi eta bukatu atakatzin egiten dute, geratu gabe, baina horretarako indar eta aguan-te handia izan behar duzu.

**Gorputza atzera eta soka gerrian sartuta.**

Gerrian sartuta eramaten da soka, aldaka eta saihetsen artean. Ongi sartu behar duzu, etzanda jartzean eskuak askatu eta gerriarekin helduz oreka mantentzeko adina.

**Marka utziko du ba?**

Ondu ere bai batzuetan.

**Eta gerrikoa?**

Ibiltzen da baina soka finkatzeko, ez babesteko.

**Ibarren ibili zineten taldea atera nahian.**

Lehen hasi ginen baina... Berriz ere jendea prest egingo balitz, taldea egiteko aukera badago. Entrenatzeko lekua frontoian badaukagu. Izaskunen ere ibili ziren, denen artean 8 elkartu ezkerro, Ibarren taldea ateratzea posible izango zen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri  
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## Patziku Perurenaren azken liburuaren aurkezpena

**LEITZA** ● Patziku Perurenak atzo bere azkeneko liburua aurkeztu zuen Leitzako liburutegian: *Dakiguna ikasten*. Perurenak 8 urtetan zehar idatzitako artikulua bildu ditu liburu honetan, eta besteak beste, ura, mina, egia, lurrea, sexua, heriotza, porlana... dira bere azken liburuari jorratu dituen gaiak. Aurkezpena Donostian egin zuen, urriaren amaieran eta atzo Leitza izan zen bere liburua aurkeztu zuen bigarren lekua. Patziku Perurenaren azken liburua Alberdania argitaletxeak argitaratu du. **N. GARZIA**

## Z Zurea da hitza info



## Anartz Olano Logroñon txapelkun

**ARESO** ● Anartz Olano aresoarrak irabazi zuen igandean Logroñoko Adarraga pilotalekuan Errioxako Pilota Txapelketa Medel pilotariarekin batera. Honetaz gain, Aresoko pilotari gazteak alebini mailan pilotari onenaren saria ere jaso zuen. Txapelketa hau Titin pilotariak antolatzen du eta argazkian Anartz Olano Titinekin agertzen da. **K.MARZOL**

# Leitzako 5 abeslarik parte hartuko dute Kantu Txapelketako finalean

**Lekunberri** ● Oihana Saenz, Maddi Olano, Judith eta Birjina Mariezkurrena eta Joxe Inazio Barbenena dira parte-hartzaileak

**NAIARA GARZIA**

2007ko Nafarroako Kantu Txapelketaren finala ospatuko dute bihar Lekunberriko Udal kiroldegian, 18:00etan. Orotara 4 taldek, 5 bakarlarik eta 7 bikotek parte hartuko dute eta Oihana Saenz, Maddi Olano, Judith Mariezkurrena, Birjina Mariezkurrena, eta Joxe Inazio Barberia dira parte hartuko duten leitzarrak.

### Modalitate berriak

Huan Velez Euskal Kantuzaleen Elkarteko koordinatzailea da, eta aurtengo txapelketaren berrikuntzen inguruan mintzatu da. «Aurtengo beste 3 modalitate sortu ditugu: sormena, era zaharra eta era modernoa. Azken urteetan gero eta gazte gehiagok parte hartzen dutela ikusi dugu, eta helduek gero eta gutxiago hartzen dute parte». Velezek duela ez hainbeste urte kantutxo txapelketako giroa erkarri du gogora. «Orduan helduek antzina-kantak abesten zituzten, bazkaldu ondoren abesten diren horietakoak, eta giro bat sortzen zuten, mahai baten inguruan antzerki pixka bat egin. Hori jada galdu egin da». Huan Velezen



Maddi Olanok eta Birjina Mariezkurrenak elkarrekin *Ametsak* abestia abestuko dute. **J. ASTIBIA**

irritiz helduek beraien burua gazteen artean ez dute ikusten, eta horrexegatik, era zaharra eta era modernoa modalitateak sortu dituzte. Sormenaren modalitateak, aldiz, abesleak sortutako abestiarekin zerikusia du. Velezek adierazi duenez, asko izan dira aurtengo motietakoak, eta giro bat sortzen zuten, mahai baten inguruan antzerki pixka bat egin. Hori jada galdu egin da». Huan Velezen

Berrikuntza honen ondorioz, sariak ondorengo modalitateetan

banatuko dituzte: sormenezko abestia, era zaharreko abestia eta era modernokoa.

### Garaikurrak ere aldatu dituzte

Bada, ordea, beste berrikuntzarik, izan ere, aurtengo kristalezko garaikurrak banatuko dituzte, Euskal Kantuzaleen Elkarteko logoarekin, eta metalezko xafra bat izanen dute, zein sari den zehaztuko duena. Aurkezpen lanetan Urko Aristi

kazetaria eta Txari Eleta, Iruñeako Euskal Herria Irratiko esataria ariko dira.

### Leitzako parte-hartzaileak

Leitzatik 5 abesleak parte hartuko dute bihar Lekunberri. Alde bati Oihana Saenzek, Maddi Olano, Judith Mariezkurrena eta Birjina Mariezkurrenak taldeko modalitatean hartuko dute parte, Itzik Xalauk izenarekin. Bes-

talde, Maddi Olanok eta Birjina Mariezkurrenak bikote bezala hartuko dute parte, eta Joxe Inazio Barberia izanen da finalean ariko den heldu bakarra.

### Finalistak

Itziki Xalauk taldeak *Haize gorria* izeneko abestia kantatuko du eta beste hiru taldeekin lehiatuko da: Lekunberriko taldea (*Txatxo* abestuko dute), Azoka taldea (Tafalla, *Gurekin* abestiarekin) eta Orbaizetako ahotsak (*Bedatsiaren heltzian*).

Bikoteetan Maddi Olano eta Birjina Mariezkurrena abeslariak (*Ametsak*) 6 bikoteekin lehiatuko dira: Izkon (Iruñea, *Lo hadi aingüriña*), Miren eta Edurne Errea (Aurizberri, *Gurekin*), Ainara Villanueva eta Edurne Errea (Aurizberri, *Atzean utzi*), Paul Martin eta Borja Ariztimuño (Lekunberri, *Amets*), Elisa Perochena eta Iñaki Gerendiain (Elizondo-Ziaurritz, *Oi ama, Eskual Herri*) eta Ainhoa eta Uxue Caballero (Tafalla, *Neurriak*).

Bakarlarik bezala bihar ondorengo abeslariak aurkeztuko dira: Gartzot (Arizkurengoa, *Azken muxarraren maldiziyua*), Maialen Braña (Elizondo, *Maita dut*), Maiteméné (Aranguren, *Anai maitia*), Saioa Krespo (Tutera, *Orain heldu*) eta Hodei Bakailoa (Eltzaburu, *Haizea*).

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Aduna**. 70m2ko etxea, 25 m2ko atikoaekin. 608 57 59 00.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta/Leizor:** 687 410 032. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 034. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leizaldekoko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Altzo.** Kiki eta Koko pailazoez *Sustrai biziak* ikuskizuna eskainiko dute Altzoko Ertobxeko gelan 17:00etan.
- **Ikaztegieta.** Ikaztegietak XVII. Kros Herrikoia igandean 11:00etan

(10 km). Izen-ematea, www.herri-krossa.com (6 euro) edo lasterketaren egunean 09:00etatik 10:30era bitartean (8 euro). Aurretik haurrentzat ere izango da lasterketa, 10:45ean.

■ **Tolosa.** Igandean Ferialekuan

egingo den XXI. Babarrun Lehiaketa Gastronomikoaren ondorengo bazkarirako txartelak salgai daude 20 eurotan Gure Kaiola elkartearen 19:30etik 21:00etara edo egun berean ferialekuan 10:00etatik aurrera (Erreserbak: 607 672709 te-

lefonoan) Antolatzailea: Gure Kaiola elkarte.  
■ **Zizurkil.** Teodoro Hernandezena 6. Ipuin Lehiaketa antolatu du Zizurkilgo Udalak Aiztondo bailara-ko adin guztietako herritarrentzat. Azaroaren 30a da lanak entregatzeko epea, udaletxeetan

emango dute Leidor aretoan 20:00etan (3 euro) eta 22:00etan afaria Casino elkartearen. Antolatzailea: Gainditzen gorren elkarte.

■ **Tolosa.** *Promesas del Este* filma emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur 22:30ean; bihar 19:30ean eta 22:30ean; etzi 19:30ean eta astelehenean 20:30ean.

### Musika

■ **Tolosa.** Kerobia eta 121 dbs (Valentzia, herrialde katalanak) musika taldeen emanaldia Bonberenean 22:30etik aurrera. Antolatzailea: Bonberenea

### Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Serge Goulart Brasilgo fabrika okupatueta mugimenduaren koordinatzailearen ekitaldi publikoa Otsabi auzo elkartearen 19:00etan, Elkartasuna Amerika Latinako fabrika okupatuekin kanpainaren barruan.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Sacrificio ecologico* filma

### Erakusketak

■ **Alegia.** Eskulan ikastaroetan egindako lanen erakusketa ikusgai egongo da Inaxio Begiristain kultur etxean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## A Agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...



### Urte askoan!

**Garikoitz Zubeldia Ibarluzea (Lizartza).** Gaur 10 urte. Muxuak guraso, anai eta aiton-amonen partetik.



### Zorionak! Andres Gaztañaga (Ibarra).

Gaur 90 urte. Zorionak etxekoan partetik, bereziki biloben partetik. Egun on ona pasa!!



### Urte askoan! Felipe Agirrezabala eta Sebastiana Azarola (Tolosa).

Gaur urrezko ezteiak. Zorionak eta muxu asko familia guztiaren partetik.

"Ez dok Hiru" www.kultura-batzordea.org

# lauru haizetara

Sexu kuadernoak

**Villabonan**

Sarrera  
8€  
Gaztetxartelarekin  
6€

**GUREA ANTZOKIAN  
AZAROAK 16,  
OSTIRALA • 22:00etan**

VILLABONAKO UDALA KULTURA BATZORDEA